



Deustuko Unibertsitatearen ikasturte hasierako ekitaldia. LUIS JAUREGALIZO / ARGAZKI PRESS

Unibertsitatea eraldaketarako motore dela esan du Oraak

Ikasturtearen hasiera ekitaldi ofiziala egin du Deustuko Unibertsitateak Bilboko campusean

ERREDAKZIOA

Bilbo

Jaime Oraa Deustuko Unibertsitateko errektorearen iritziz, «Euskadik ezin du bere bigarren eraldaketa arrakastaz egin, unibertsitate

sistematik ez bada prozesuaren motore». Horregatik, uste du gizarteak «sendotu» egin behar dituela unibertsitateari eskaintzen dizkion baliabideak, bai giza baliabideak, bai dirua. Inbertsio gehiago eskatu zituen ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako.

Jaime Oraak Deustuko Unibertsitatearen ikasturte irekiera ekitaldi ofizialean esan zituen hitzok, atzo, Bilboko campusean. Ekitaldian izan ziren Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria eta Tontxu

Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua.

«Euskadi inoiz baino prestatuago dago Europako goi hezkuntzako eremuan sartzeko», esan zuen Juan Jose Ibarretxek. Tontxu Camposek berrikuntza izan zuen hitzaldiko ardatza. Berrikuntza iraunkorra: «Hargatik zaigu hain ezinbestekoa gogoeta zorrotza eta zintzoa, berrikuntzaren aldeko gure eginahalak herritan denon eta gizadi osoaren onerako bideratzen asmatzeko».

Haur eskoletako langileen plan bat egiteko eskatu dio Legebiltzarrak Hezkuntzari

ERREDAKZIOA

Gasteiz

Eusko Legebiltzarrak eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari plan bat egin dezala Haurreskolen Partzuergoak izaten duen langile gabeziari irtenbidea emateko. Legebiltzarreko alderdi guztiek babestu zuten PPK aurkeztutako proposamena.

Aurreko Aste Santuan 50 bat haur eskola itxi behar izan zituzten —batik bat Gipuzkoan eta Bizkaian— ordezkapenak egingo zituzten langileak ez zituztelako. Maite Larrañaga Haurreskoletako Partzuergoko gerenteak esan zuen arazoa sortu zela ez zutelako ordezkorik aurkitu lau eguneko egun gutxitako ordezkapenak egiteko.

Proposamena aurkeztu duen PPKo taldeak Hezkuntza Sailari le-

poratu dio «inprobisatzen» aritzen dela langileen alorrean.

ELA ETA EILAS-EN KRITIKAK. Bestalde, ELAk eta EILASEk ere kritikatu zuten atzo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. EILASEk leporatu dio irakasle askok ikasturtea hasi dutela eman beharreko gaiak behar bezala prestatzeko astirik gabe. Izan ere, lan eskaintza publiko uztailan egin izanak, lan banketa baldintzatu zuela esan du EILASEk. Bestalde, sindikatuek kritikatu du 5.000 irakasle egonkortasunik gabe ari direla.

Bestalde, ELAk kritikatu du Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak esandakoa, alegia, irakasleek uko egin diezaieketela etxetik 50 kilometrotik gora dauden lan eskaintzei. «Hori ez da hala, bestela zerrendatik eroriko lirateke».

Emakumeek lan aukera berberak izatea galdegin du Joseba Azkarragak

BILBO = Emakumeek lan merkatuan aukera berdinak izan ditzatela eskatu du Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburu Joseba Azkarragak. Emakumeentzat diskriminazio positiboa egingo duten Jaurlaritzaren neurriak iragarri ditu, aukera berdintasunaren alde.

Daimler Chrysler enpresan lanuzteak ari dira egiten

GASTEIZ = LABek deituta lanuzteak egin zituzten atzo Daimler Chrysler enpresan. Lantegiko zuzendaritzak beharginei mobilizazioetan parte ez hartzeko presio handia egin diela salatu du sindikatuek. Halere, 650 lagunek parte hartu dutela nabarmendu du.

Juanito Trecet euskal presoari ongietorria egingo diote Lezon

LEZO = 25 urtez espetxean izan ondoren, 50 urte dituen Juanito Trecet euskal preso bere herrira, Lezora (Gipuzkoa), itzuliko da astelehenean. 18:00etan Hondarribiko aireportura (Gipuzkoa) ailegatuko da, eta hortik Lezorako bidea hartuko du. 20:00etan omenaldia egingo diote haren lagun eta senitarteek Lezoko Herria elkarteak.

Irungo Ogasun Batzordea eratzea erabaki dute aho batez

IRUN = Gipuzkoako Diputazioa osatzen duten alderdi guztiek bat egin zuten atzo Irunen (Gipuzkoa) ogasun batzorde bat eratzeke. Irungo ogasunean izandako ustezko iruzurra ikertzeko eta erantzukizun politikoak —«halakorik egon ezker»— zehazteko beharra nabarmentzen da atzo adostutako tes-tuan.

San Fermin Txikiko jaien aldeko deia egin du Jai Batzordeak

UPNk mozioa aurkeztuko du udal laguntzak kentzeko, «terrorismoaren apologia» egingo delakoan

A. B. Iruñea

Iruñeko udaleko UPN taldeak mozio bat aurkituko du gaurko udalbatzan, San Fermin Txikiko egitarauetan udalaren parte hartzea ukatzeko. UPNk salatu du presoen aldeko topa sartu dela egitarauan, eta Yolanda Barcinaren aurkako idazkiak. «Terrorismoaren apologia» egin dela salatu du taldeak. Mozioak aurrera egingo balu, San Fermin Aldapakoaren prozesioan ez lukete Iruñeko erraldoiek edo La Pamplonesak parte hartuko.

Festen antolatzaileek nabarmendu dute, nolana ere, alde-



San Fermin Txikiko ekitaldi bat, Nabarrerria kalean, iaiz. LANDER Fdez. DE ARROYAVE

aurretik hitzartuta zeuden musika ikuskizunak ere ez dituela udalbatzan, San Fermin Txikiko egitarauetan udalaren parte hartzea ukatzeko. UPNk salatu du presoen aldeko topa sartu dela egitarauan, eta Yolanda Barcinaren aurkako idazkiak. «Terrorismoaren apologia» egin dela salatu du taldeak. Mozioak aurrera egingo balu, San Fermin Aldapakoaren prozesioan ez lukete Iruñeko erraldoiek edo La Pamplonesak parte hartuko.

Festen antolatzaileek nabarmendu dute, nolana ere, alde-

katu du gastuei aurre egiteko. Halaber, UPNko udal taldearen «manipulazioa» salatu du.

San Fermin Txikiko jaiak Alde Zaharreko bizilagunek eta ostalariak antolatzen dituzte, eta asteburu osoan iraungo dute. Txupinazioa gaur eguerdian piztuko dute Aldapako plazan.



music-piano

• Instrumentu markarik onenak dauzkagu: hari eta haize instrumentuak, perkusiozkoak, partiturak, diskoak... • Musikan hasteko ikastaroa: 4 urtetik aurrera.

• Musika hizkuntza, korua, gitarra, baxua, pianoa eta teklatura, trikitia eta txistua.

Gorbeia kalea, 37 - Tel. eta Faxa: 945 24 79 57 - 01012 GASTEIZ
Posta elektronikoa: music-piano@telefonica.net